

2025eko URRIA

USURBIL

Kultura

KALAKAN

+BERÇAITS ANAIAK



URRIAK 19 | AGINAGAKO ELIZA ZAHARREAN

AHOTSEZ

TXALAPARTA

FESTA

URRIAK 18
HERRIGUNEAN

10/18



SAN PRAIXKU JAIK AGINAGAN
Urriak 3-5 eta 9-11

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.



URRIAK 3, OSTIRALA

17:30 Herri kirolak, herriko gazte eta ez hain gazteekin.
18:30 Txupinazoa Eliza Zaharreko baloian pregoi eta brindisarekin; txanpaina gure kontu!
19:00 Ostolaza eta Larrañaga trikitilarien saioa plazan, hankak nekatu arte.
19:30 Sardina eta sagardo banaketa.
Bitartean, XLI. Toka txapelketa herrikoia eta buruhandi bizkor-bizkorak.

URRIAK 4, LARUNBATA / San Praixku eta Oilasko Biltzaileen eguna

05:30 Oilasko biltzaileen gosaria dantzatzeko indarrak hartzeko.
06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde Elkartetik.
11:00 Meza Nagusia.
11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik fundamentu pixkat jartzeko.
12:00 Jubilatuen hamaiketakoa Aginaga Sagardotegian, bertsolariek alaituta.
18:00 Txosna irekiera.
18:30 Eliza Zaharrean arratsaldea alaitzeko HEREJE FIGHTERS.
Ondoren Herri poteoa; afarirako beroketa!
21:00 Herri Afari bikaina. Sarrerak Eliza Zaharrean irailak 22, 24 eta 26an 18:00-20:00, 30 € helduak eta haurrak 12 €
23:30 Txosna irekiera gorputza berotzeko.
24:00 Frontoian lotsak itzali eta denok dantzan jartzeko ITZAL ERROMERIA.
03:00-7:00 gaupaseroentzat DJ BON.

URRIAK 5, IGANDEA

16:00 XLII. Mus Txapelketa irekia. Izen-ematea 15:30ean ireki eta 16:00etan itxiko da.
16:00 Telazko poltsak apaintzeko tailerra teknika ezberdinekin.
18:30 Bingo Musikatua, nor izango da aurtengo irabazlea?
19:00 Haragi egosi, txorizo eta sagardoa igandeko ajea baretzeko.

URRIAK 10, OSTIRALA / Ume eta Gazteen eguna

10:00 Umeen jolasen hasiera.
13:00 Umeen bazkari goxo-goxoa. Gosearekin etorri!
16:00 Puzgarriak eta, ondoren eguraldiak laguntzen badu, apar festa.
17:30 Txokolate banaketa eta buruhandi gaizto gaiztoak.
18:00 Erraldoi eta buruhandien irteera Lauburu konpartsaren eskutik.
19:00 Musikaz girotutako poteoa parranda giroan sartzeko.
21:00 Gazte afaria Atarialde Elkartearen. Izena emateko instagramera idatzi.
23:00 Txosna irekiera.
23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: BIDE BATEZ eta DJ HIDALGO.

URRIAK 11, LARUNBATA / Gaupasa eguna

12:00 Herri kirol erakustaldia.
18:00 Txosna irekiera.
19:00 Denak dantzan jartzeko ARRANOPOLA TXARANGA.
00:00 Kontzertuak frontoian: MIRUA eta TRIKIDANTZ.
03:00 Eliza Zaharrean: DJ JOTATXO.
08:00 Errefus bilketa gaupaseroentzat.

URRIAK 12, IGANDEA

17:30 Auzolanean dena jasotzera.

USURBIL
HERRI
ZAINZTAILEA

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

URRIAK 2, OSTEGUNA

Ate irekiak:
bizi osorako etxebizitzak

18:00 Eguntzegin (igogailuko pasarelaren hasieran).
Udala zaintza baliabide berri bat martxan jartzeaz da: bizi osorako etxebizitzak. Halako sei daude Eguntzegin, eta lau udalak eskainiko ditu, alokairuan, Matiarekin hitzarmena sinatuta. Ate irekien saioan azalpenak jaso eta etxebizitzak barrutik ikusteko aukera eskainiko da. Esleipen prozesua ate irekien ostean hasiko da, izen-ematearekin: urriaren 6tik 25ra izango da, udalean aurrez aurre edo egoitza elektronikoen bidez.

HERRI
ZAINZTAILEA
USURBIL

URRIAK 16, OSTEGUNA

Aurkezpena: Hurbilduz
auzo-zaintza proiektua

18:00 Potxoenean.
Bakardade ez hautatuaren inguruko lanketa abiatu zuen udalak, urte hasieran. Zabalduz kooperatibarekin elkarlanean, galdetegiez gain, herriko hainbat eragile elkarriketatu zituzten. Jasotako informazio guztiarekin, diagnostikoa osatu da, eta horren berri emango da aurkezpenean. Horrekin batera, auzo-zaintza proiektu pilotu bat jarri da martxan, Aginagan: komunitateak zaintza eskaintzeko izan dezakeen potentzialitatea aprobetxatu nahi da. Udaz geroztik egindako lanketaren berri emango da.

LIBURUTEGIKO
EKINTZAK



Antolatzailea: Sutegi Udal Liburutegia

URRIAK 8, ASTEAZKENA
Ibon Martinekin topaketa: “Onin”
eta “Sira”

18:00 Sutegiko auditoriumean
Iraupena: 1,15 ordu inguru.
Norentzat: 8 urtetik gorako haur eta gaztetxoek zuzendua.
“Onin” eta “Sira” liburuei buruz hitz egingo digu, nola sortzen dituen, eta bestelako kontuak argituz.



URRIAK 22, ASTEAZKENA
Literatura Solasaldia gaztelerez,
Ane Merinoren eskutik

19:00 Sutegi Udal liburutegian.
Iraupena: 1,15 ordu inguru.
Mintzagai izango dugun liburua: Lucia Berlinen “Manual para mujeres de la limpieza” ipuin liburua. Aipatu liburuaren hainbat ale jada eskuragarri dugu liburutegian.



URRIAK 27, ASTELEHENA
Irakurketa solasaldia “Nor” liburua

17:30 Sutegi Udal liburutegian.
Iraupena: 1,15 ordu inguru.
11 urte gorako gazte-txontzako Irakurketa Solasaldia, Irati Goikoe-txek idatzitako “Nor” liburuaren bueltan.



12

Igandea

18:00

Sutegiko auditoriumean

“Jone, Batzuetan” euskarazko zinea

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarte. Nori zuzendua: helduei.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.
SARA FANTOVA (Bilbo, 1993) zuzendariaren pelikula. Aitak gaztetan idatzitako egunerokoe-tan topatu zuen bere bakarkako lehen film luzea egiteko inspirazioa. Bizitza, heriotza, zaintza eta maitasuna ardatz hartuta Bilbon grabatutako pelikula ikusiko dugu.

Filmak Joneren (20) coming of age kontatzen du. Gazteak bere lehen maitasuna bizi du, eta, aldi berean, aitaren parkinsonaren ondorioak bizkortu egiten dira ustekabeen.
Billboko Aste Nagusian, Olgarekin igarotzen duen hilezkortasun-sentsazioaren eta Aitak bere gaixotasuna zeharkatzeko duen modu bereziaren arbuioaren artean biziko da Jone.
Gertaera horiek direla eta, Jonek uda horretan jakingo du neska-to hori izaten hasiko den heldu bihurtzen ari dela.
Dagoeneko hainbat jaialditan sariak jaso ditu: Malagako Zinema Jaialdian epaimahaiaren aipamen berezia jaso du, Bartzelonako D'A festibalean pelikula onenaren saria, eta Nazioarteko Deluxe Saria REC Zinemaldiko laborategi profesionalaren esparruan. DONOSTIAKO ZINEMALDIA 2025 – Zinemira sailan ere izan da.



17

Ostirala

19:00

Sutegiko auditoriumean

Mihise taldearen “Ahaldatu”
diskoaren aurkezpen kontzertua

Antolatzailea: Mihise.

Sarrera: bertan izango da 5€-tan.

Mihise herriko musika taldeak bigarren lanaren aurkezpen kontzertua antolatu du. Azken urteetan su baxuan landutako “Ahaldatu” diska plazaratuko dute estreinekoz herrian bertan. Lagun giroan ospatu nahi dute diska berriaren jaiotza.

17

Ostirala

21:00

Santueneako Ibai-Ondo elkartearen



Bertso Afaria Santuenean: Nerea
Elustondo, Eli Pagola eta Sustrai Colina

Antolatzailea: Santuenea Elkartea ·

Menua: 35€ Txartela salgai Esnaola janaridendan.

Menua: Txistorra, bakailaoa saltsan, saiheskia, gazta, irasagarra eta intxaurreak, kafea eta kopa.

18

Larunbata

Egun osoz

Herrigunean



Txalaparta festa

Antolatzaileak: Jexux Artze Kultur Elkarte eta 650 Usurbil Bizi! (Usurbilgo Udala).

Bazkarirako Txartelak: Helduek 46€ usurbilkultura.eus bidez. Umeentzako menua ere egongo da 21€tan. (Umeentzako menua, aurrez usurbiltxalaparta@gmail.com emailera eskatu behar da eta egunean bertan ordaindu beharko da). Bazkarirako Txartelak eskatzeko azken eguna: Urriak 12.

Egitaraua:


11:45 Herri erromeria. Adar deia, txalaparta ikasleen emanaldia, albokariak, txalaparta irekia, txorizo eta sagardo banaketa.
Lekua: Mikel Laboa plazan (Euria eginez gero, Askatasuna plazan izango da)
14:00 Ibilaldia Saizar Sagardotegira Albokariarekin.
14:30 Bazkaria Saizar Sagardotegian (Txartelak aurrez erosi behar dira).
- Bazkarian zehar Txalaparta irekia
18:30 Artzabal plazatik hasita kontzertuak herrian zehar.
- Malkoak tx
- Talka Taldea
20:00: Juan Mari Beltran Laukotearen kontzertua. Lekua: Herriko frontoia.

18

Larunbata

19:00

Zubietako elizan



Ana Goitiaren Bakarrizketa “Katana”

Antolatzailea: Zubietan Lantzen

Sarrerak: usurbilkultura.eus bidez, https://pycmt.me/a1A0d

Ana handia da, galanta. Bizitzan gertatzen zaion guztia ere handia da eta kontatzeko modua ere halakoa dauka.

Normalean konturatzen ez garen gauzetan jarriko du arreta bakarrizketa honetan... egungo musika eta marketina, “Sold out”aren moda, guraso eta umeak kontzertuetan egotearen moda, matxismoa, lodifobia eta egunerakotasuneko gaiak...

19

Igandea

10:00

Ugarte baserriaren atarian



Bertso-ibilaldia Usurbilgo sagar eta
sagardoaren kultura eta paisaian barrena

Antolatzaileak: Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea eta Usurbilgo Udala · Izen-ematea: alkartasuna@usurbil.com, 943 361114 edo https://650usurbilbizi.eus. Doan.

Hizketako gaiaren gidaria: Jakoba Errekondo

Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña.

11:30 aldera, Egiluzeaundiko dolarean bertsoaldia.

Sagardoaren paisaia kulturala ezagutzeko parada Maialen Lujanbio eta Andoni Egañaren bertsoak aditu eta Jakoba Errekondoren argibideak jasota.

19

Igandea

08:00-14:00

Buruntzaldean



Buruntzaldeko ibilbideen XVI. Eguna

Antolatzaileak: Buruntzaldeko Udaletako kirol zerbitzuak.

Autobus zerbitzua ere martxan egongo da. Egurdiko 12:00etan aterako da lehenengo zerbitzua Aginagan (Ezpaldiko Gasolindegian) eta azkena 14:00etan toki berdinean.

Autobusak egingo duen ibilbidea: Aginaga (Ezpaldiko Gasolindegia), Usurbil (San Ignazio biribilgunea), Lasarte-Oria (Dorretxeko biribilgunea), Andoain (Goikoplaza atzealdea) eta azkenik Urnieta (Kiosko geltokia).


Buruntzaldeko ibilbideen Egunean Buruntzaldea eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu.

19

Igandea

18:00

Aginagako Eliza Zaharrean



Ahotsez: Kalakan eta Berçaits anaiak

Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra.

Sarrerak: 12€ usurbilkultura.eus bidez


KALAKANek BERÇAITS Anaiak-ekin duen proiektu berria kantuari oro har eta euskal kantugintzari bereziki, maitasun adierazpena da. Kalakan dela, munduan zehar 15 urteko ibilbide profesionalarekin, edo Berçaits Anaiak, betiko abeslari “afizionatuak”, denak “etxe” bere-tik datoz. AHOTSEZ proiektuarekin, 4 artistek familiako mahai handien inguruan entzun, ikasi eta kantatzen duten kantuekiko maitasun hori partekatzen dute gurekin. Elgarrekin, musikak identitatearen eta memoria kolektiboaren ibilgailu gisa duen indarra goraitpatzen dute, belaunaldiak batuz kantu horien oihartzunen bidez. Hemen, ez da bakarrik kantatzea. AHOTSEZ funtsezkoan murgiltzea da: ahotsa, bibrazioa eta emozioen transmisioa. Gertuko bat edo gehiagorengandik jaso zuten kultura nonenganak maitasunaren adierazpena ere bada, bizirik mantendu eta errespetuz eta esker onez transmititu nahian.

24

Ostirala

19:30

Salbatore Elizan



Organo kontzertua:
Mikel Ansola Garitagoitia

Antolatzailea: Organoaren lagunak · Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



URRIAK 12, IGANDEA
Twerk (Booty dance) saioa

10:30-14:30 Pelaioenean. Hizkuntza: Elebitan.

URRIAK 18, LARUNBATA
Emakumeon Topaketa

Pelaioenean.

10:00 Herriko emakumeok elkar ezagutzeko, sareak josteko eta etxearen erreferentzialtasuna handitzeko antolatu dugu Emakumeon Topaketa. Aurrerago argitaratuko da egitaraua, xehetasunekin.

URRIAK 23, OSTEGUNA

“Mi parto robado” liburuaren aurkezpena
eta solasaldia

18:00 Pelaioenean

Sarrera: doan.

Nahia Alkorta Elezgaraiak idatzitako “Mi parto robado” liburuaren aurkezpena eta gaiaren inguruko solasaldi musikatua. Egilea bertan izango da, Joana Auzokoa Larrea eta Agurme Alkorta Balbas usurbildarrek lagunduta.



URRIAK 24-25
BOOKTEGI JAIALDIA 2025

Antolatzailea: Booktegi.

Laguntzaileak: Noaua! eta Usurbilgo Udala.

Urtero bezala, Booktegi Jaialdia urriaren azken asteburuan ospatuko da Usurbilen. Beti bezala, euskal letren festa izango dugu, hainbat ekitaldietan literatura, musika eta antzerkia uztartuz. Eta, nola ez, irakurle eta entzule guztiak gonbidatuta daude.

URRIAK 24, OSTIRALA
Rupertorioa

19:00 Sutegiko auditoriumean.

Ruper Ordorikak berak idatzi dituen letren omenaldia: musika, errezitaldia, hausnaketa, kontakizunak...

booktegi
jaialdia
2025



URRIAK 25, LARUNBATA

10:00 Zumarte Musika Eskolan:

Elkarri irakurri bi

solasaldi:

Moderatzailea: Nerea Loiola.

Bi solasaldi, non hiruna idazle arituko diren. Solasaldien gaia, funtsa, literatura izango da, eta idazle horiek Booktegin argitaratu berri dituzten ipuinak izango dira abiapuntu:

- Iñigo Astiz - Giltza
- Irati Zubia - Ez gara alferrik galdu
- Miren Agur Meabe - Atezaina
- Ane Labaka- Erreskatea
- Garazi Albizua - Maria
- Itxaro Borda - Kateak Kate

Arratsaldean Sutegin:

16:00 Udarregi ikastolako Booktubers.

17:30 Oihan Vega “Euskañolitis”.

Bakarriketak euskararen erabilera du mintzagai, ikuspuntu satiriko eta komikoaz.

19:00 Kontzertua. Ameba “Badok”.

Usurbilgo Rock taldeak bere bi diskoetako abestiak eskainiko ditu, baita bertioaren bat ere. Kontzertu honek bukaera emandio dio Jaialdieri.

Edo ez... Aurten dantzak ere lekua izango du Jaialdian, eta Sutegitik ateratzean han izango dugu zain dantzaldia.